

3.<sup>a</sup> Gorostiaga jaunak bere ikastaroan erabili nai duan egitaraua bidali digu.

4.<sup>a</sup> Aita Gabriel-ek *Fisikako* iztegia. Olabide jaunari bialdi bear zaio bere txospena eman dizagun.

5.<sup>a</sup> Gorostiaga jaunaren lan bat irakuñi da. *De fonética vasca*. Geiago osotuko duela dio.

6.<sup>a</sup> Azkue jaunak beste bat irakuñi digu: *Gipuzkera osotua*.

7.<sup>a</sup> Aita Intzak *efiz-efi* idorotako itz ta esaerak ekañi dizkigu.

8.<sup>a</sup> Eslaby jaunak Euskaleñiari dagozkion lan batzuek argitaratzeko urétxu bezela dago: *Los Vascos y su Cultura. La música vasca en relación al señor Azkue*, bañan oraindak ez ditu argitaratu.

Ibili gera autuan, zerbaitez jaun auxe goratu nairik bañan ez degu ezer erabaki.

Bigaramonerako gai batzuk utzirik otoitzez amaitu da batzaraldia.

---

### Donostian Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian, 1933'ko Azilaren 3'an.

Jaun auek bildu ziran: Azkue, maipuru; Urkijo, Eguskitza, Intzagarai, Intza, Lakonbe, Etxegari eta Elissalde, ta urgazletatik Ormaetxea.

Otoitz egin da.

1.<sup>a</sup> Urkijo jaunak esan digu *facsimile* bitartez, lengo idazle zañen lanak argitaratzeko bera dabilela. Mikoleta ere asmotan darabilki. Oihenart-en liburua berdin. Euskaltzaindiak pozik entzun ditu Urkijo langilearen itz atsegingañiak.

2.<sup>a</sup> Urkijo berak INCHAUSPE REFRANES-tzaz itz egin digu. Beste lan bat ere aipatu du, Leopoldo Irigarai jaunak euskeratua. CHIKITOK.

3.<sup>a</sup> Altube jaunak eskutitz batez bere lan bat bialtzen digu. Iztegi beñirako oarpentxo batzuek ezarzen ditu. Ontzat artu ditugu.

4.<sup>a</sup> Itz beñiak somatzen luzaro jardun degu.

5.<sup>a</sup> Schuchardt sarirako laster letozke lanak. Ordurako ta oien azterketarako Euskaltzaindiak batzordea izendatu du: Aztertzaile izango dira: Lakonbe, Altube ta Ormaetxea jaunak.

Beste gairik izan ez da, otoitzez amaitu da batzañaldia.

---

### Donostian Eusko-Ikaskuntzaren gela nagusian, 1933'ko Lotaziñaren 20'an.

Jaun auek bildu dira: Azkue, maipuru; Urkijo, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe, Etxegarai eta Elissalde; urgazletatik Ormaetxea jauna.

Otoitzez asi da.

1.<sup>a</sup> Schuchardt-saria Dr. G. Rohlfs jaunari emanen zaio, lan bakara bai-da, ta iñoren kalte gabe, oraingoz, sari au eman liteke.

2.<sup>a</sup> Azkue jaunari gernikar bat agertu zaio Euskaltzaindiaren zurezko ikurdi edo eskudo bat eskeiñaz. Ederki egiña bai-da eta Euskaltzaindiak beretzat artu du 50 peseta ordaindu-ta.

3.<sup>a</sup> Euskaltzaindiaren laguntzaileak idazki bat zabaldu dute gipuzkeraz. Bizkaieraz ere jañi bear da.

4.<sup>a</sup> Ormaetxea jaunak bere lan bat irakuri digu: *Pronombres personales, posesivos e intensivos*.

Beste gai batzuek bigaramonerako utzita otoitzez amaitu da batzañaldia.

---